

## 50. EUSKAL HERRIKO DANTZA TXAPELKETAKO

### KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETA

**1.- Lehiaketaren xedea:** Lehiaketaren helburua da 50. Euskal Herriko Dantza Txapelketa iragartzeko publizitatea eta kartelak irudikatuko dituen kartela aukeratzea.

**2.- Parte-hartzaileak:** Edonork parte hartu ahal izango du (pertsone fisiko, elkarte, e.a.). Gehienez hiru lan aurkeztu ahal izango ditu egile bakoitzak.

**3.- Lanen ezaugarriak eta aurkezpena:** Kartelak ezaugarri hauek izan beharko ditu:

**50. Euskal Herriko Dantza Txapelketa 2026-10-17 Segura** testua jarri beharko da karteletan.

*Tamaina:* formatu bertikalean aurkeztu beharko dira eta 50 x 70 zentimetroko neurria izango dute.

*Kolorea eta teknika:* aukerakoa. Kartela formatu digitalean aurkeztu behar da irudi bektorialeko fitxategi batean. Hautaketaren 1. fasean, fitxategiak 300 ppp-ko gutxieneko erresoluzioa izango du, eta gehienez 5 MB-ko edukiera izango du. Irabazleak bereizmen handiko formatuan aurkeztu beharko du bere proposamena.

*Testuak:* erabilitako tamainak zein tipografiak ongi irakurtzea erraztu behar dute.

Obra horiek, ideiarri nahiz edukiari dagokionez, originalak izan beharko dute derrigor, eta jendaurrean aurkezteko modukoak. Ezinbesteko baldintza da lanak lan originalak izatea (ez beste batzuen kopia edo imitazioa, baizik eta egilearen asmamenaren emaitza, IA adimen artifizialaren erabilera alde batera utzita) eta argitaragabeak (inoiz argitaratu edo jendaurrean ezagutzera eman ez direnak). Baldin eta obraren batek baldintza hori betetzen ez badu, deskalifikatu egingo da.

Kartelak fitxategi digital batean aurkeztu behar dira, Segurako Udaleko kultura sailean [kultura@segura.eus](mailto:kultura@segura.eus) helbidera bidalita. Jaso-agiri gisa mezua erantzungo da. Epaimahaikideek kartelak aukeratzeko garaian sortzaileen anonimotasuna bermatuko da.

Kartelaren egiletza ezin izango da publiko egin lehiaketaren prozesuan, ezta inolako bitartekoren bidez ere, sare sozialak barne (instagram, facebook, twitter, You Tube, TikTok, etab.), eta hori deskalifikatzeko arrazoia izango da.

Kartelaren beheko aldean, antolatzaile eta laguntzaileen logoak sartzeko tartea utzi beharko da.

**5.- Sariak:** Lehiaketaren irabazleak 400€ jasoko ditu. Gainerako parte hartzaileek 20€-ko baleak jasoko dituzte herriko dendetan kontsumitzeko. Maiatzaren 18an irabazlea nor den jakitera emango da [www.segura.eus](http://www.segura.eus) atarian.

**6.- Aurkezteko epea:** 2026ko martxoaren 31tik maiatzaren 5era.

## **7.-Hautaketa-prozesua eta epaimahaiaren osaera:**

Kultura Sailak izendatuko du epaimahaia, emakumeen eta gizonen ordezkaritza parekatua izango dela bermatuta.

Epaimahaiko kideek ezin izango dute lehiaketan parte hartu, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan xedatutakoa bete beharko dute, abstentzioaren eta errefusatzearen arrazoiei dagokienez.

Baloraziorako irizpideak hauek izango dira:

- Aurkeztutako lanaren kalitatea.
- Esanahia: 50.EHDT kartela aurkezteko eta irudikatze gaitasuna.
- Sormena proposamenaren garapenean.

## **8.- Epaimahaiaren betebeharrak:**

Epaimahaiak, hautaketa-prozesuan, edozein unetan deskalifikatu ahal izango ditu lan guztiak, baldintza hauetakoren bat betetzen badute:

- Zalantzazko egiletza izatea
- Pertsonen duintasunaren aurka egitea.
- Beste obra batzuk plagiatzearen susmoa izatea.

## **9.- Obraren baldintzak:**

Generoak irudikatzean, irudiek oreka bilatuko dute, rol eta estereotipo tradizionalak azpimarratu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeraren arloan desberdintasunen tratamendu gutxiesgarria ekidinez. Saritutako kartela eta beronen era guztietako erreproduzio eskubideak Segurako Udalaren jabetzakoak izango dira. Egokitzat jotzen diren publizitate lanetan ere erabili ahal izango ditu. Kasu horretan, autoreak ez du erreklamaziorik egiteko eskubiderik izango, ez eta jadanik eskuratutako sariaren zenbatekoaz gain beste diru kopururik jasotzeko ere. Horrez gainera, saritutako lanak eduki ditzakeen jabetza intelektualaren gaineko eskubide guztiak Segurako Udalari emandakotzat joko dira, inolako kontraprestaziorik gabe.

## **10.- Informazio gehiago:**

Lehiaketari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, interesatuek Kultura Sailarekin jarri beharko dute harremanetan. Horretarako telefonoa 943 80 10 06 / 627 44 91 61 da eta posta elektronikoa [kultura@segura.eus](mailto:kultura@segura.eus)

## **11.- Aplikatu beharreko arautegia eta datu babesa:**

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar. Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa kontuan izanik arabera tratatuko dira.